



2003/03/25eko prentsa-oharra

JAIOTZEN ESTATISTIKA (JAIE)2002ko hirugarren hiruhilekoa

2002KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN JAIOTZAK APUR BAT GEHITU DIRA 2001EKO ALDI BERAREN ALDEAN

Urteko metatua 13.401 jaiotzatan kokatu da Euskal AEn.

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2002ko hirugarren hiruhilekoko datuetan, 4.529 jaio ageri dira, aurreko urteko aldi berean baino %1,6 gehiago. Lurraldez lurralde, Araban 626 ume jaio ziren (%+2,5), Bizkaian 2.325 (%+1,8) eta Gipuzkoan 1.578 (%+1,0).

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2002ko hirugarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.704 ume (%59,7), lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.572 ume (%34,7) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi dira; eta 253 ume (%5,6) hirugarren eta ondorengo seme-alabak dira. Araba izan da hirugarren eta ondorengo seme-alaben proportzioa Euskal AEko batez bestekoa baino txikiagoa izan duen herrialde bakarra.

Amen ia erdiak 30 eta 34 urte artean dituzte

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, horien artean izan baitira erditzeen ia erdiak. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%25,3) eta 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %20 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amaten direnak %5,6 dira, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %2,9 besterik ez du ekarri.


Ezkontzaz kanpo jaiok guztizkoaren %17,7 hartzen dute eta 2001eko hirugarren hiruhilekoaren aldean puntu bat baino gehiago hazi da. Gipuzkoan proportzio hori Euskal AEko guztizkoaren (%16,0) azpitik geratu da. Talde horren erditze-adina umeak eduki dituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa da, 25 urtetik beherakoak baitziren ama ezkongabeen %20,4.

Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-taula

	2002ko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2002ko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2001eko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.529	100,0	4.601	100,0	4.458	100,0
Araba	626	13,8	654	14,2	611	13,7
Bizkaia	2.325	51,3	2.384	51,8	2.284	51,2
Gipuzkoa	1.578	34,8	1.563	34,0	1.563	35,1
Amaren adinaren arabera						
< 25 urte	252	5,6	241	5,2	239	5,4
25 - 29 urte	907	20,0	936	20,3	926	20,8
30 - 34 urte	2.095	46,3	2.096	45,6	2.014	45,2
35 - 39 urte	1.144	25,3	1.187	25,8	1.158	26,0
>= 40 urte	131	2,9	141	3,1	121	2,7
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.704	59,7	2.581	56,1	2.610	58,5
Bigarrena	1.572	34,7	1.745	37,9	1.598	35,8
Hirugarrena edo gehiago	253	5,6	275	6,0	250	5,6

Iturria: EUSTAT

Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
	Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
	Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es
	Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez
	Tel.: +34-945 017 549. Faxe: +34-945 017 501.
	Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es